

amarauna  BIHURGAILUAK

Zenbat kilo arroa bat?

Edozelako neurriak bihurtzeko tresnak daude sarean erabilgarri

Jabi Zabala • Bilbo

Sare globalean elkartzen garenean, gure solaskidea txinatarra izan daiteke edo australiarra, eta hizkuntza ezberdina izateaz gain, ordu diferentean biziko da, txanpon ezberdina erabiliko du eta distantziak neurtzeko neurri ezberdinak erabiliko ditu seguruenerik. Gero eta beharrezkoagoa dugu besteen kontzeptu horiek menperatzea, edo gutxienez, gure parametrotara itzultzeko gai izatea.

Horretarako sareak laguntza emango digu. Titularreko galdera kenduta —arroa hamabi kilo inguru da—, neurri batetik bestera bihurtzeko hainbat tresna daude amaraunean. Gotzon Egia internauta euskaldunak aspaldi emandako pistei jarraitu diegu eta hainbat webgune interesgarri eta lagungarri aurkitu ditugu. Euroa eta dolarra menperatzen jakin beharko genuke, honezkerro, internauta trebeok. Baina hatzak edo galoiak zenbat zentimetro eta zenbat litro diren gaitza bada, areago izango da drakmak eta rupiak liberetara edo pezetetara itzultzea. Horregatik, badira mementoan, unean uneko trukearen arabera, eragiketa horiek kalkulatzeko ditzizuten hainbat tresna telematikoa.

Esaterako, Measurement Converter izeneko webgune errusiarrean, era guztietako neurriak bihurtzen ahal ditugu: zama, bolumena, luzera, area, lastertasuna, presioa, tenperatura, denbora eta abar. Teknologiaz hobeki hornitua, Megaconverterrek era askotako neurriak bihurtzen ditu: antzinako luzeera, bolumen eta zama, angeluak, areak, astroen arteko distantziak, sistema hamartarretik besteetara, dentsitatea, energia, finantza interesak, indarra, beroa, sukaldeko neurriak, luzera, zama, sistema metrikoko laburtzapenak, lastertasuna, presioa, tipografia... Aukera bi ditugu: Megaconverter tradizionala eta bigarren ber-


tsioa, zeinak interface aurrera- tuagoa baitu.

Sarean online ez gaudenerako badira programa batzuk, Josh Madison's Converter esaterako. PC Windowserako programa txiki bat da —167 Kb— eta berau jaitsi eta instalatu ostean era guztietako bihurtzeko egingo dizkigu.

Aldiz, konbertitu nahi duguna dirua bada, Oanda Currency Converter webgunean munduko ia edozein diru motaren arteko trukea kalkulatzeko digute, bankuen arteko interes tasak aplikatuta eta kreditu txartelaren arabera. Gainera, denboran atzera egin dezakegu eta une jakin batean zegoen trukearen arabera kalkulatu egin.

arekin konektatzen da, eta ordu zehatzarekin bat jartzen da. Instalatu nahi ez badugu edo Linux edo Mac bat baldin badaukagu, nahikoa da Greenwicheko erlojuaren webgunera jotzea.

Measurement Converter
www.convert-me.com/en
MegaConverter
www.megaconverter.com
Josh Madison's Converter
www.joshmadison.com/
software
Dirua itzultzeko
www.oanda.com/convert/classic
World Time
www.worldtime.com
Greenwich
time.greenwich2000.com




WEBGUNEAK

Xabier Etxebeeste

Yahoo Españako Zuzendari Xabier Etxebeeste iruine- mea elkarriketatuko dute gaur gauean Interneten bi- dezko irratia.com irratia eus- kaldunean. Asteazkene- ro *Jalgi Hadi Dantzarat!* irra- tsaioa emititzen dute mundu osorako, 21:00etatik 22:00etara, eta azken asteo- tan *Euskal kultura digitala?* galderapean elkarriketa sorta egiten ari dira gonbi- datu zenbaitekin. Dudarik gabe, interesgarria izango da elkarriketa, gonbidatua- ren garrantziagatik ez ezik, bera euskalduna izanik gure komunitatearen presentzia sarean nola ikusten duen azalduko duelako eta, duda- rik gabe, Yahoo! sartuta da- goen kinka ezinbestez elka- rriketan agertuko delako. Orain arte egindako elkarri- ketak sarean daude entzun- gai, irratia.com helbidean.

Yahoo! España
www.yahoo.es
Irratia.com
www.irratia.com



Nekazari erdaldunak

EAEko nezazaritzaren arloari buruzko informazio webgu- nea aurkituko dugu neka- nēt.net domeinuan. Eusko Jaurilaritzaren eta diputazio- en ikurrak dituen erdarazko aurkezpen orrialde baten os- tean, orrialde nagusira hel- duko gara, eta bertan neka- zaritzari eta arrantzari buruz- ko informazio interesgarri asko kausituko dugu: feriak, nekazari errolda, berriak eta beste hainbat atal aurkituko ditugu... Erdara hutsez. Gure hizkuntzaren arrastorik ez dugu aurkituko arloko beste webgune batzuetan, Erika Fundazioa eta Neiker dela- koan, adibidez. Azken hone- tan ingelese ere aukera dai- teke gaztelaniaz gain.


www.nekanet.net
www.elikafundazioa.net
www.neiker.net

info BURTSA

Yahooren hondamendia burtsan

Yahook burtsan izan duen beherakadak beste puntucom enpresa asko eraman ditu berarekin. Wall Streeten %16 galdu zuen ostegunean, eta berarekin NASDAQ indizeko hainbat enpresaren baloreak eraman zituen: CNETk %11 galdu zuen, Terra Lycos- ek %6 eta eBayk %9. Interneteko beste en- presa guztiak ere galerak izan dituzte, eta dena Yahoorekin hasi zen. Asteazkenean, Yahook jakinarazi zuen bere zuzendari na- gusi Tim Koogleren dimisioa. Prentsa ohar berean, bere irabazien prebizioak kaleratu zituen: iragarrita zeuden 232 milioi dolar ira- bazi beharrean, aurten 170 eta 180 milioi ar- tean irabaziko zuela adierazi zuen enpresak, iragarritakoa baino %27 gutxiago. Burtsan

jaitsierarik gerta ez zedin, oharra arratsaldean igorri zuten baina jada bezpe- ran, zurrumurruen ondo- rioz, enpresak %6 galdua zuen burtsan, inbertsore askok euren diruak kendu baitzituzten. Os- tegunean, enpresa beste inork erostea gala- razteko, Yahooren kotizazioa eseki zuten eta beste neurri batzuk hartu zituzten, langi- leei akzioak erosteko lehentasunezko auke- ra eskaintzea, adibidez. Azken aldion zuzen- daritzan krisi sakona pairatzen ari da Yahoo, %100 sarekoa den enpresa aitzindaria. De- sertziorik garrantzitsuena Europako zuzen- dari orokorra zen Fabiola Arredondorena



izan zen. Arredondo Euro- pako pertsonarik botere- tsuenetakoa zen, prentsa ekonomikoaren arabera. Kanadako eragiketen ardu- radunak eta Asiako beste bi exekutibok ere enpresatik alde egin zuten. Hori pun- tucom enpresek burtsan

Yahoo
www.yahoo.com
NASDAQ indizea
www.nasdaq.com